

INGURUMENEN TOKIKO FOROAREN
BILERAREN AKTA
(15.01.14)

HIRIGINTZAKO ZINEGOTZIA
JOSEBA ARREGI Jn.

INGURUMEN ALORREKO TEKNIKARIA:
JOSU ATEKA Jn.

HAPO-REN BULEGOKO ARKITEKTOA
ARGIÑE ENCINAS CANO And.

FOROKO IDAZKARIA
ARANTZA CABEZA And.

INGURUMEN AHOLKULARIA:
JULEN REKONDO Jn.

BERTARATUAK:

PEDRO BARRENETXEA Jn. (Eskolako Agenda 21; Aixerrota Institutuko irakaslea).

NATIVIDAD MORALES And. (Gizartiar Elkartearen ordezkaria).

KOLDO NABASKUES Jn. (Urkoa Kontsumitzaileen Elkartea).

CELIA MARAÑON And. (Ekologistak Martxan).

CARLOS ARANA Jn. (Sarekideren ordezkaria)

MAITE IBARBENGOCHEA And. (Getxo Enpresako Lehendakaria).

MIGUEL ANGEL ROGGERO Jn. (Itxartu Taldearen ordezkaria).

EDORTA DEL SER LORENTE Jn. (Ibilbide Ekologikoak; prestigidun pertsona Ingurumenaren esparruan).

XABIER BUENETXEA Jn. (Prestigidun pertsona Ingurumenaren esparruan).

SANTI BARRADO Jn. (Bizkel Elkartea).

KELTSE EIGUREN Andreak (Ingurumen Alorreko Zinegotzia) jakinarazi du ezingo dela etorri.

Getxon, 2014ko urtarrilaren 15ean. Egun horretan, 19:00etan, Getxoko Ingurumenaren Tokiko Foroa elkartu zen, adierazitakoen parte-hartzearekin.

GAI-ZERRENDA

Gai-zerrendarekin berez hasi aurretik, Julen Rekondo Jaunak ongi-etorria eman dio Foroan kide berria den Ekologistak Martxan elkartearen ordezkari Celia Marañoñ Andreari, Pedro Ortueta ordezten duelarik. Aurkezpenak egin dira Celia Marañoñ Andreak Foroko kideak eta HAPOrren Bulegoko arkitekto Argiñe Encinas Cano Andrea ezagut ditzan; azken hau Joseba Arregi Hirigintza Alorreko Zinegotziarekin batera joan da batzarrera, Getxoko HAPOrri buruzko informazioa aurkeztera.

ACTA DE LA REUNIÓN DEL FORO LOCAL
DE MEDIO AMBIENTE
(15.01.14)

CONCEJAL DE URBANISMO
D. JOSEBA ARREGI

TECNICO DE MEDIO AMBIENTE:
D. JOSU ATEKA

ARQUITECTA OFICINA DEL PGOU
D^a. ARGIÑE ENCINAS CANO.

SECRETARIA DEL FORO
D^a. ARANTZA CABEZA.

CONSULTOR MEDIOAMBIENTAL:
D. JULEN REKONDO (Ingurune)

ASISTENTES:

D. PEDRO BARRENETXEA (Agenda Escolar 21 y profesor del Instituto Aixerrota).

D^a NATIVIDAD MORALES (Representante de la Asociación Gizartiar).

D. KOLDO NABASKUES (Asociación de Consumidores Urkoa).

D^a. CELIA MARAÑON (Ekologistak Martxan).

D. CARLOS ARANA (Representante de Sarekide)

D^a MAITE IBARBENGOCHEA ((Presidenta de Getxo Enpresa).

D. MIGUEL ANGEL ROGGERO (Representante de Itxartu Taldea).

D. EDORTA DEL SER LORENTE (Itinerarios Ecológicos y persona de reconocido prestigio en Medio Ambiente).

D. XABIER BUENETXEA (Persona de reconocido prestigio en Medio Ambiente).

D. SANTI BARRADO (Asociación Bizkel).

Excusa su no asistencia D^a KELTSE EIGUREN (Concejala de Medio Ambiente).

En Getxo, a 15 de enero de 2014. Se reunió a las diecinueve horas de este día el Foro Local de Medio Ambiente de Getxo, con asistencia de los capitulares reseñados.

ORDEN DEL DÍA

Antes de iniciar propiamente el orden del día, D. Julen Rekondo da la bienvenida a la nueva miembro del Foro, D^a. Celia Marañoñ, representante de Ekologistak Martxan, que sustituye a D. Pedro Ortueta. Se hace una ronda de presentación para que D^a Celia conozca a las personas miembros del Foro, así como la arquitecta de la Oficina del PGOU, D^a Argiñe Encinas Cano, que acude a la reunión, junto al concejal de Urbanismo, D. Joseba Arregi, para presentar la información sobre el PGOU de Getxo.

1. HAPOnen berrikuspenari buruzko informazioa

Getxoko Udaleko HAPOnen Bulegoko arkitekto Argiñe Encinas Andreak bere azalpenei ekin die, Getxoko HAPOnen berrikuspenaren “Aurretiazko Azterlanak” deritzon lehenengo faseari buruzko informazioa emanaz; azterlan horretan lurraldearen antolamendurako tresnek udalerriarengan daukaten eragina analizatu da: Bizkaiko Errepideen Lurraldeko Arlo-plana (LAP); Itsasertza Babestu eta Antolatzerako LAP; EAeko Trenbideen LAP; Ibaiertzak eta Erreka ertzak Antolatzeko LAP; Hezeguneen LAP; Nekazaritzaren eta Basozaintzaren LAP, Bilboko Aireportuaren Lurralde-plan Zuzentzailea, Bilboko Portuko Espazioak Erabiltzeko Plana, Bilboko metropoliko Lurraldeko Zati-plana, etab. Azterlan horietan, lurraldearen antolamendurako planek Getxoko plan orokorraren gain ezartzen dituzten zehaztapenen norainokoa aztertu da; baita plana osatzen eta gauzatzen duten lurzuaren erabileraren eta jardueren ezarpen eta garapenaren gainean derrigor bete behar diren lotura eta baldintza batzuk ezartzen dituzten gainezarritako baldintzatzaileak ere, HAPOnen zehaztapenek bete behar dituztenak. I FASE honetan egiten den analisia dokumentazio grafikoz osatutako zati batean eta aplikatu beharreko lurraldearen antolamenduaren plan ezberdinen arauen, baldintzatzaileen eta gainezarritako loturen gainjartze espazialaren eduki grafikoan oinarritzen den eta eduki hori garatzen eta azaltzen duen idatzizko euskarrian garatzen da.

Bere azalpenean, Argiñe Encinas Andreak hainbat mapa erabili ditu, Getxo udalerriaren Lurraldearen Arlo-planek eta Lurraldeko Zati-planek izan dezaketen eragina azaltzeko, eta zenbait adibide jarri ditu.

Argiñe Encinas Andreak behin baino gehiagotan eskatu die Foroko kideei, Ingurumenaren esparruan adituak diren aldetik, gai horrekin lotutako gaietan sakontzeko haien kolaborazioa eta ekarpena.

Udalaz gaindiko plan horiek baldintzatu egiten gaituztela ere azpimarratu du, batez ere, udalerriaren Ingurune Fisikoan, eta aipatu du, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legean ezarritakoaren arabera, area funtzional bateko LZP dela lurraldearen antolamenduan maila hierarkiko handiena daukan tresna, Lurraldearen Antolamendurako Jarraibideei ematen zaien maila gorena alde batera utzita. Hau da, LZPren zehaztapenak nagusitzen direla LAPek eta Hirigintzako udal plangintzek ezarritakoen gainetik.

Momentu horretan, Carlos Arana Jaunak Galeako gortorlekua norena den galdetu du.

1. Información sobre la revisión del PGOU

La arquitecta de la Oficina del PGOU del Ayuntamiento de Getxo, D^a Argiñe Encinas comienza su exposición informando de la primera fase de la revisión del PGOU de Getxo, denominada “Estudios Previos”, donde se ha analizado la incidencia de los instrumentos de ordenación del territorial: PTS de Carreteras de Bizkaia, PTS de Protección y Ordenación del Litoral, PTS Ferroviario de la CAPV, PTS de Ordenación de Márgenes de Ríos y Arroyos, PTS de Zonas Húmedas, PTS Agroforestal, Plan Director del Aeropuerto Bilbao, Plan de Utilización de Espacios Portuarios del Puerto de Bilbao, PTP de Bilbao Metropolitano, etc., en el municipio. En dichos estudios, se realiza un análisis del alcance que establecen las determinaciones de los planes de ordenación del territorio sobre las del plan general de Getxo y también los condicionantes superpuestos que establecen ciertas vinculaciones y condiciones de obligado cumplimiento sobre la implantación y desarrollo de los usos del suelo y de las actividades que los conforman y materializan, que deban ser respetadas igualmente por las determinaciones del PGOU. El análisis que se realiza en esta FASE 1, se desarrolla en una parte constituida por documentación gráfica y en un soporte escrito que se basa, desarrolla y explica el contenido gráfico de la superposición espacial de las normas de aplicación de los diversos planes de ordenación del territorio, condicionantes y vinculaciones superpuestas.

En su exposición, D^a Argiñe Encinas se ayuda de distintos mapas para explicar la incidencia que pueden tener los PTS y el PTP en el municipio de Getxo, y pone varios ejemplos.

D^a Argiñe Encinas insiste en repetidas ocasiones en pedir a los miembros del Foro, como personas entendidas en Medio Ambiente, en pedir la colaboración y aportaciones para profundizar en temas relacionadas con esta materia.

También recalca que estos planes supramunicipales nos condicionan, sobre todo en el Medio Físico del municipio, y también comenta que, de acuerdo con lo establecido en la Ley 4/1990 de Ordenación del Territorio del País Vasco, el PTP de un área funcional, sin perjuicio del nivel máximo establecido para las Directrices de Ordenación del Territorio, es el instrumento de ordenación del territorio de mayor rango jerárquico. Es decir, que sus determinaciones prevalecen sobre las que se establecen por los planes territoriales sectoriales y también sobre las del planeamiento urbanístico municipal.

En este momento, D. Carlos Arana pregunta si el fuerte de La Galea de quién es.

Bestalde, Argiñe Encinas Andreak egiten ari diren beste lan baten berri ere eman du: 2001eko HAPOn Egikaritze-unitate deritzenak egikaritu ote diren jakitea, alegia. Horrela, hiri-lurzoruko ze multzo gauzatu ez diren eta plan berrian zeintzuk egin litezkeen jakingo da, beste orube batzuk okupatu aurretik.

Natividad Morales Andreak galdetu du Erromoko Erretiratuen Kluba dagoen eraikinarekin zer egiteko asmoa dagoen. Adierazi du etxebizitza pribatuak eraikitzeko asmoa dagoela dioten zurrumurruek entzun dituela. Argiñe Encinas Andreak erantzun dio oraindik ez dela gai horietaz hitz egitera iritsi HAPOn baitan, eta are gehiago, komentatu du ez dakiela aipatutako udal planean planteatzeko gaia denik ere.

Azalpenaren une honetan, Koldo Nabaskues Jaunak galdetu du zenbat fase dauzkan HAPOk eta, bestalde, adierazi du, bere ustez, horrenbeste azterketa egin aurretik, beharrezkoa dela nahi dugun udalerrri motari buruz eztabaidatzea.

Argiñe Encinas Andreak erantzun dio zazpi fase dauzkala.

1. Herritarrek Parte Hartzeko programa eta Aurretiazko Azterlanak.
2. Aurrerakinaren Atarikoak.
3. Aurrerakina.
4. Berrikuspenaren Irizpide eta Helburuen akordioa.
5. HAPOn Idazketa eta Hasierako Onespena.
6. HAPOn Behin-behineko Onespena.
7. HAPOn Behin-betiko Onespena.

Nahi dugun udalerrri motarekin lotutako galderari erantzunez, Argiñe Encinas Andreak aipatu du galdera hori, hain zuzen ere, Lantaldearen baitan egin zela, galdetegiaren bitartez. Jarraian, Lantaldearen saioen eta webguneko foroen ondorioei buruzko informazioa eman du. (Foroari bidalitako txostena).

Bestalde, Xabier Buenetxea Jaunak zera aipatu du: Udalaz gaindiko planek Getxorengan daukaten eraginari buruzko azterlanak egin diren arren, Getxo udalerrriaren ingurumen-mailari buruz dauden azterlan eta informazio guztiak zein fasetan kontuan hartuko diren jakitea falta dela. Argiñe Andreak erantzun dio Aurrerakinaren fasean egingo dela hori. Une honetan, Foroan hainbat kidek Korridore Berde bat sortzeko organismo honetatik atera zen proposamena aipatu dute; Argiñe Encinas Andreak ez dauka horren berri eta azalpenak eman dizkiote. Eta Foroan proposamen horri berriro heltzeko beharra sortu da, agiri batean jasota gera dadin.

Por otra parte, D^a Argiñe Encinas también informa de otro de los trabajos que se están haciendo y es saber si las llamadas Unidades de Ejecución del PGOU de 2001 se han ejecutado. Ello permitirá saber que agrupaciones en suelo urbano no se han consumado y podrían hacerse en el nuevo plan, antes de ocupar otros solares.

D^a Natividad Morales pregunta qué se tiene pensado hacer con el edificio donde se encuentra el Club del Jubilado de Romo. Comenta que ha oído rumores que se habla de construir viviendas privadas. D^a Argiñe Encinas le responde que todavía no se ha llegado a hablar de esos temas en el PGOU, e incluso comenta que sea un tema a plantear en el citado plan municipal.

En este momento de la exposición, D. Koldo Nabaskues pregunta de cuantas fases consta la revisión el PGOU, y por otra parte, que él cree que antes de hacer tantos estudios, es necesario debatir sobre qué tipo de municipio queremos.

D^a Argiñe Encinas le responde que son siete.

1. Programa de Participación Ciudadana y Estudios Previos.
2. Preavance.
3. Avance.
4. Acuerdo de Criterios y Objetivos de la revisión.
5. Redacción y Aprobación Inicial del PGOU.
6. Aprobación Provisional del PGOU.
7. Aprobación definitiva del PGOU.

En relación con la pregunta relacionada con qué municipio queremos, D^a Argiñe Encinas comenta que precisamente esa pregunta se había hecho en Lan Talde, a través de un cuestionario. Y acto seguido, informa de las conclusiones de las sesiones de Lan Talde y de los foros web. (Informe enviado al Foro).

Por otra parte, D. Xabier Buenetxea pregunta que, si bien se han hecho estudios sobre la incidencia de los planes supramunicipales en Getxo, falta saber en qué fase se va a tener en cuenta la cantidad de estudios e información existentes a nivel medioambiental del municipio de Getxo. D^a Argiñe responde que será en la fase de Avance. En este momento, varios miembros del Foro comentan la propuesta que nació en este organismo de la creación de un Corredor Verde, que desconoce D^a Argiñe Encinas y que se le explica. Y surge la necesidad de abordar en el Foro una vez más esta propuesta, para plasmarla en un documento.

Batzarra amaitzeko ordua heltzeaz denez, HAPOrerkin zela eta noiz jarraituko den aipatu da. Joseba Arregi Hirigintza Alorreko zinegotziak eta Argiñe Encinas arkitekto Andreak jakinarazi dute hurrengo astean Herritarren Parte-hartzeari dagokion Bigarren Faseko saio bat dagoela eta, ondoren egin litekeela Foroaren hurrengo batzarra. Azkenean, batzar hori martxoan egitea erabaki da; baita HAPOri eta Herritarrek Parte Hartzeko Programari buruzko informazioa, Lantaldearen Lehenengo Faseko ondorioen eta ekarpenen txostena eta Aurretiazko Azterlanen Txostena Foroari bidaltzea ere.

Hileroko ohiko batzarrari dagokionez, hurrengo batzarra 2014ko otsailaren 12an, asteazkena, egingo da.

Getxon, 21:15ean, amaitutzat eman da batzarra.

Como se va acercando la hora de finalizar la reunión, se comenta cómo y cuándo continuar con el PGOU. Tanto, el concejal de Urbanismo D. Joseba Arregi y de la arquitecta, D^a Argiñe Encinas, informan que la próxima semana hay una sesión de la 2^a Fase participación ciudadana, y que posteriormente se podría tener una próxima reunión del Foro. Al final, se acuerda que dicha reunión se puede celebrar en marzo, y se decide también enviar al Foro diversa documentación acerca del PGOU, como el Programa de Participación Ciudadana, el informe de conclusiones y aportaciones de la 1^a Fase de Lan Talde, y el Informe de Estudios Previos.

En cuanto a la reunión regular de cada mes, la próxima reunión tendrá lugar el miércoles día 12 de febrero de 2014.

En Getxo, a las 21,15 horas se da por finalizada la reunión.